

Langileen parte-hartzea ez da gai berria hainbat inguruetan. Enpresa eredu demokratikoa aztergai eta presente izan dugunon artean aspaldi landutakoa dugu. Hala ere, azken urteotan pentsaezin zen zirkulutan ere jorratu da gaia, enpresa eredu demokratikoetatik harago funtzionamendu piramidalak nagusi direnetan.

Parte-hartzea bi norabidetan planteatzen dituzte enpresek, oro har: lanpostuko parte-hartzea (autogestioaren izenpean) eta emaitzetan partaidetza.

Lehenari dagokionez “harreman estilo berriak” aldarrikatzen dituztenak badira, kooperazioa eta lankidetzak berrikuntzak bailiran. Mendetan zehar auzolana ere deitu izan zaio Euskal Herrian. Hala ere, egia da eredu demokratikoa duten hainbat erakundetako lanpostuko parte-hartzea alde batera utzi dela urte askoan, sistema Fordista aplikatzearen ondorioz. Baina badago marraztu beharreko muga bat, autogestioaren izenean egun zenbait enpresetan aplikatzen diren politiketan. Errealitatean bertikalki ezarritako helburuak edonola betetzea eskatzen baitzaio langileriari. Lan-baldintzak eta duintasuna alde batera utzita, horretarako beharrik bada.

Emaitzetan parte-hartzeari dagokionez, langile kolektiboari eskatzen zaio konpromisoa erakundearekiko, helburu “komunekiko”. Hain zuzen ere orain, enpresetako emaitza negatiboak direnean banatu beharrekoak. Mezuak irabaziak daudenean errepikatuko ote diren, zalantza handiak ditut.

Langileen parte-hartzea bultzatzearen atzean interes ekonomiko hutsak egon litezkeen arren (badira hainbat kasutan), probestu behar genuke aukera parte-hartzea bere osotasunean mahaigainean jartzeko, baita enpresa ereduak ere.

Hain zuzen ere kooperatibak dira aipatutako bi parte-hartze esparruak bateratzen dituztenak. “Kooperatibak ez dira perfektuak, baina bai perfektibleak” zioen aitak, Arizmendiarrietari erreferentzia eginez. Perfektibleak, baina batez ere eraldaketa sozioekonomikoa lortzeko lankidetzan eta demokrazia ekonomikoan oinarritutako tresnak dira. Kapitala lanaren menpekoa bihurtzen dutenak, emaitzen banaketa baino, etorkizuna eraikitzeke emaitzen berrinbertsioa planteatzen dutenak. Norbanakoen garapena alde batera utzi gabe helburu komunitarioak bilatzen dituztenak.

Dena den, ezin gara itsutu. Kooperatibak enpresa eredu hutsak dira. Testuinguruaren arabera arrakasta izan dezaketen tresnak, edota abantaila fiskal hutsengatik sortutako erakunde kapitalista soilak.



Irudia: [Soc. Coop. de producción pesquera "Liberación Campesina"](#) (Jimmy Thomas, cc-by-sa)

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)